



GAZTERIA ZUZENDARITZA

1.- GAZTERIA ZUZENDARITZARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK.

1.1.-EAEKO TOKI-ERAKUNDEAK GAZTEEN EMANTZIPAZIO-DIAGNOSTIKOAK ETA PLANAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 421 21/1071

4. kapitulua; **2023**: 300.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena, honako jarduera hauek sustatzeko: diagnostiko-azterketak egitea, gazte-emantzipazioko planak eta gazte-planak egitea, plan horien jarraipena edo ebaluazioa egitea, eta toki-mailako beste ekimen batzuk egitea edo horiek sistematizatu eta ebaluatzea, baldin eta horien helburua gazteen emantzipazio-prozesuan laguntzea bada.

Helburua: Zeharkako gazte-politika eta gazteen emantzipazioa sustatzea.

Jarduera: Gazteen emantzipazioa bultzatzea toki eremuan.

Adierazleak: Toki erakundeentzako diru-laguntzak, gazteen emantzipazio planak eta ekimenak garatzeko: 20

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak, nortasun juridikoa dutenak, eta mankomunitateak edo udalaz gaindiko erakundeak, nortasun juridikoa dutenak.

1.2.- GAZTE-TALDEEN ARTEKO MUGIKORTASUN ETA ELKARTRUKERAKO JARDUERAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 452 19/0728

4. kapitulua; **2023**: 145.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartrukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Helburua: Gaztetasuna sustatzea berriazko programen eta zerbitzuen bitartez.

Jarduera: Gazteen mugikortasuna sustatzea.

Adierazleak: Gazteen mugikortasunaren inguruko proiektuentzako diru-laguntzak: 15.

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: EAEko pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazi-asmorik gabeak.

1.3.- GARAPEN LANKIDETZARAKO ENTITATEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMARAKO PROIEKTUAK AURKEZTEKO

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 452 19/0690

4. kapitulua; **2023**: 80.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programa arautzen duena.

Helburua: Gaztetasuna sustatzea berriazko programen eta zerbitzuen bitartez.

Jarduera: Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa antolatzea.

Adierazlea: Gobernu kanpoko erakundeak: 40.

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.



Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako lankidetzako erakundeak.

1.4.- GAZTERIA ARLOAN EGITARAU ETA JARDUERAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 452 23/0547

4. kapitulua; **2023:** 800.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

- 400.000 €, 2023ko ordainketa-kreditu gisa.
- 400.000 €, 2024ko konpromiso-kreditu gisa.

Araua: Ebazpena, gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Helburua: Gazteen partaidetza sustatzea.

Jarduera: Gazteen elkartegintza sustatzea eta elkarteen funtzionamendurako eta jardueretarako laguntzak ematea, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Adierazleak: Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak, gazteria alorrean programak eta jarduerak garatzeko: 55.

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: EAEko pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazi-asmorik gabeak.

1.5.- EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMAN PARTE HARTZEKO EUSKADIKO GAZTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 452 19/0689

4. kapitulua; **2023:** 250.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programaren deialdia iragartzeko Ebazpena.

Helburua: Euskadiko gazteak garapenerako lankidetzak-ekintzetan sentsibilizatzea.

Jarduera: Euskal gazteak sentsibilizatzea hegoaldeko herrialdeetako lankidetzak-ekintzetan eta herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzea.

Adierazlea: Programan parte hartuko duten gazte kopurua: 100

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: pertsona fisikoak, Euskadin erroldatutako gazteak.